



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

60. INFORMAZIO BULETINA

> 2011ko Urria



GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> Kohesio-Politikaren Etorbizuna: 2014-2020

Europako Batzordeak lege sorta egiteko proiektu bat egin du, 2014-2020rako kohesio-politikaren esparru izango dena. Politika hori lerroan egongo da Europa 2020 Estrategiarekin eta emaitzetan eta gaietan jarriko du arreta.

Europako Parlamentuak eta Batzordeak proposamen horiek eztabaidatuko dituzte 2012 amaieran aplikatzeko, eta aldi berean EBren aurrekonturako Hainbat Urtetarako Finantza-esparruaren negoziazioan aurreratuko da. Batzordeak hurrengo programazio-aldiko kohesio-politikan 336.000 milioi euro erabiltzea proposatu du.

Proposamen berriek politikaren dimentsio estrategikoa indartu nahi dute, eta erkidegoko inbertsioa hazkunderako eta enplegurako epe luzeko helburu europarretara ("Europa 2020") zuzentzen dela bermatu.

Lege sortak ondorengo hartzen du barne:

- Erregelamendu orokor bat, Eskualde Garapeneko Europako Funtsa (EGEF), Europako Gizarte Funtsa (EGIF) Kohesio Funtsa (KF), Landa Garapenerako Europako Nekazari Funtsa (LGENF) eta Itsasoaren eta Arrantzaren Europako Funtsa (IAEF) arautuko dituzten arau komunak ezartzen dituena. Horrela hobeto konbinatuko dira funtsak EBren esku-hartzeak eragin handiagoa izan dezan.
- EGEFerako, EGIFerako eta Kohesio Funtserako berariazko hiru erregelamendu.
- Bi erregelamendu lurralde-lankidetzaren helburua eta Lurralde Lankidetzarako Europako Taldea (LLET) tratatzeko.
- Bi erregelamendu Globalizaziora Egokitzeko Europako Funtzari (GEEF) eta Gizarte Aldaketarako eta Berrikuntzarako Programari buruz.
- Komunikazio bat Europar Batasunaren Elkartasun Funtzari (EBEF) buruz.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/what/future/proposals_2014_2020_en.cfm



> Euskal ekonomiaren eta Europar Batasunaren hazkundeari buruzko aurreikuspenak

Eusko Jaurlaritzak behetik jokatu du bere aurreikuspenetan 2011 eta 2012 multzorako eta orain % 0,8an eta % 1,4an daude hurrenez hurren.

Aurreikuspen horrek adierazten digu ez dela aldaketarik espero aurtengo bigarren seihilekoaren bilakaeran eta 2012 arte itxaron beharko da BPGaren azelerazio txiki bat ikusteko. Industriak eta zerbitzuek ekonomiaren euskarri izaten jarraituko dute eta eraikuntzari kostatu egingo zaio balio positiboetara itzultzea.

Barne-eskariak laguntza positibo baina urria eskainiko du BPGaren hazkundera aurreikuspen-horizonte guztian eta etxeetako kontsumoaren hobekuntza arinaren laguntza izango du, baina kontsumitzaileen konfiantza kaltetuta dago egoera ekonomiko orokorra eta lan-merkatuaren etorkizun txarra direla bide.

Kanpo-sektoreak, berriz, bere laguntza positiboa eskainiko du BPGaren hazkundera eta hiruhileko batzuetan zehar barne-eskariaren hazkundera egindako ekarpena gaitutuko du.

Eusko Jaurlaritzaren aurreikuspenak Europako Batzordearen berrienen, udazkenekoen desberdinak dira. Batzordeak % 1,6ko hazkundera aurreikusten du EB27rako eta % 0,6ra arinduko da 2012an.

Gipuzkoako ekonomiaren eta enpresen ikuspegitik, hazkunderaren desazelerazioa nabarmentzen da 2012an kanpo-merkatu nagusietan. Hala, ekonomia alemanaren % 0,8ko hazkundera aurreikusten da eta ekonomia frantsesaren % 0,6koa. Ekonomia espainola % 0,7 haztea aurreikusten da.

Informazio gehiago:

http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-clic/eu/contenidos/informacion/clic/eu_clic/adjuntos/d11111.pdf

http://ec.europa.eu/economy_finance/eu/forecasts/2011_autumn_forecast_en.htm



> Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) erreforma

Europako Batzordeak Nekazaritzako Politika Bateratuaren (NPB) erreforma-proiektua aurkeztu du 2013 ondorengorako. Proiektu horren helburua nekazaritzaren lehiakortasuna, iraunkortasuna eta lotura lurralde osoan finkatzea da, herritar europarrei elikadura osasuntsua eta kalitatekoa bermatzeko, ingurumena zaintzeko eta landa-guneak garatzeko.

Erreformaren hamar puntu nagusiak hauek dira:

- Errentarako laguntzak, hazkundea eta enplegua dinamizatzeko
- Krisia kudeatzeko tresna dinamikoagoak eta erronka ekonomiko berriei aurre egiteko hobeto egokituak
- Ordainketa «ekologiko» bat produktibitatea epe luzean eta ekosistemak zaintzeko
- Inbertsio gehigarriak ikerketan eta berrikuntzan
- Elikakate lehiakorragoa eta orekatuagoa
- Nekazaritza-ingurumeneko neurrietarako pizgarria
- Nekazari gazteak instalatzea erraztea
- Nekazaritzako enplegurako eta enpresa-espiriturako pizgarria
- Zona ahuletan arreta handiagoa jartzea
- NPB sinpleagoa eta eraginkorragoa

Arau berriak 2011 erdialdean proposatzea eta 2014an indarrean jartzea espero da.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/agriculture/cap-post-2013/legal-proposals/index_en.htm

http://ec.europa.eu/agriculture/cap-post-2013/communication/citizens-summary_es.pdf



> Europarako Interkonexio Tresna: 50.000 milioi inbertsioetan

Europako Batzardeak inbertsioetan 50.000 milioi euroekin finantzatu duen plan bat aurkeztu du energia-sare, sare digital eta garraio-sare europarrak hobetzeko. Azpiegituretako berriarazko inbertsio giltzarri batzuek enplegua sortzen eta Europaren lehiakortasuna indartzen lagunduko dute gehien behar duenean.

Europarako Interkonexio Tresnak Europar energiaren, arlo digitalaren eta garraioaren bizkarrezurrean dauden hutsuneak beteko dituzten proiektuak finantzatu ditu. Europako ekonomia garbiagoa izango da tresnaren bidez, garraio-modu ekologikoagoak eta abiadura handiko banda zabaleko konexioak sustatuko direlako eta Europa 2020 Estrategiari jarraituz energia-iturri berriztagarriak erabiliko direlako. Gainera, energia-sareen finantzaketak gehiago integratu du energiaren barne-merkatua, EBren energia-mendekotasuna murriztuko du eta horniduraren segurtasuna indartuko du. Halaber, proiektuak finantzatzeko bonuen Europa 2020 Ekimenaren baldintzak ere onartu ditu. Arrisku elkarbanatuko tresna ugarietako bat izango da hori eta Tresnak horretarako jo dezake proiektuetarako finantzaketa pribatua biltzeko.

Europarako Interkonexio Tresnak 31.700 milioi euro inbertitu ditu Europako garraio-azpiegitura hobetzeko, falta diren lotuneak eraikitzeko eta trafiko itoko puntuak ezabatzeko. Energiari, Europa barneko azpiegituretan 9.100 milioi euro inbertitzea aurreikusi da, eta energia- eta klima-arloetan EBren 2020rako helburuak lortzen lagunduko dute. Era berean, ia 9.200 milioi aurreikusi dira banda zabaleko sare laster eta ultralasterretan eta zerbitzu digital paneuroparretan inbertitzen laguntzeko.

Proposamen sortak hauei buruzko komunikazioak ditu: azpiegitura europar integratuetarako hazkunde sorta bati, proiektuak finantzatzeko bonuen Europa 2020 Ekimenaren fase pilotuari eta finantza-tresna berritzaileen hurrengo belaunaldiako esparru bati buruzkoak: EBren kapital- eta zor-plataformena. Eta Europarako Interkonexio Tresnari buruzko erregelamendu-proposamenak eta Europa barneko garraio-, energia- eta telekomunikazio-sareetarako arauak ere biltzen ditu.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/budget/reform/commission-proposals-for-the-multiannual-financial-framework-2014-2020/index_en.htm

http://ec.europa.eu/transport/infrastructure/connecting/connecting_en.htm#

http://ec.europa.eu/energy/infrastructure/strategy/2020_en.htm

http://ec.europa.eu/information_society/digital-agenda/index_en.htm

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0659:FIN:ES:PDF>



> Langileek enpresetan parte-hartzearen aldeko konpromisoa azaldu du Gipuzkoako Foru Aldundiak Bruselan

Joan den urriaren 18an, Europako enpresetan langileen parte-hartze finantzarioaren Astean parte hartu zuen Oscar Usetxi Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzaren eta Jakintzaren Sustapen Zuzendariak Bruselan; Europako Ekonomia eta Gizarte Lantaldeak antolatu zuen astea Pro-EFP proiektuaren baitan.

Bere hitzaldian, erakunde sozioekonomikoen eredu bat garatzearen alde foru erakundeak duen konpromisoa azaldu zuen Oscar Usetxik, hain zuzen ere, pertsona protagonista duena eta enpresa-proiektuaren nagusitasuna bere gain hartzea ahalbidetzen diona.

Informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2011-11-09%20B%20Semana%20Europea.pdf>



KOMUNITATEKO POLITIKAK

> Industria-politika: lehiakortasuna indartzea

Europako Batzordeak adierazi duenez, ezinbestekoa da industria europarraren lehiakortasuna hobetzea; izan ere, EBren esportazioen % 74 eta I+Garen % 80 manufakturako enpresetatik dator.

Europako Batzordearen "Industria-politika: lehiakortasuna indartzea" komunikazioak dioenez, EBren susperraldi ekonomikoa nahiko motela izan da eta oraindik ahula da. Hazkunde ekonomikoa handi baten motor nagusia enpresak dira, beren tamaina edozein dela ere, eta ideia berrien eta jardura berrien aldeko ingurune batean jardun behar dute.

Sei esparru giltzarri proposatzen ditu lehiakortasuna indartzeko:

- Bereziki ETEei laguntzea, finantzaketa eskuratzea erraztuz, nazioartekotzea eta merkatuetarako sarbidea erraztuz eta administrazio publikoek ordainketa-epeak murrizten dutela zainduz.
- Ekonomian egiturazko aldaketak erraztea, sektore berritzaileago eta jakintzan oinarrituetara jotzeko, produktibitatearen hazkunde handiagoa dutenetara eta mundu-mailako lehia gutxiago jasan dutenetara (hala nola industria ekologikoetara edo ekipamendu elektriko eta optikoetara).
- Berrikuntza bereziki industrian sustatzea, baliabide urriak bateratuz, berrikuntzari laguntzeko sistemen zatiketa murriztuz, merkatuan soluzio berritzaileak sartzeari erraztuz eta ikerketa-proiektuen ardazketa hobetuz.
- Baliabideak erabiltzean iraunkortasuna eta eraginkortasuna sustatzea, bereziki berrikuntza eta teknologia garbiagoak, energiaren prezioak bidezkoak eta ez distorsionatuak izan daitezen zainduz eta energia banatzeko sareen hobekuntzarekin eta interkonexioarekin jarraituz.
- Enpresa-ingurunea hobetzea, batik bat enpresetan eragina duen karga administratiboa murriztuz eta banda zabaleko, energiako eta garraioko azpiegiturak erabiltzen dituzten zerbitzu-emaileen artean lehia sustatuz.
- Merkatu bakarraren abantailak baliatu, zerbitzu berritzaileei lagunduz eta merkatu bakarraren legeria osorik aplikatuz, bereziki zerbitzu-zuzentara.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0642:FIN:ES:PDF>



> Gizarte-ekintzaitzari laguntzeko ekintza-plana

Batzordearen "Gizarte-ekintzaitzaren aldeko ekimena. Ekosistema bat eraikitzea gizarte-enpresak gizarte-ekonomian eta -berrikuntzan sustatzeko" komunikazioa.

Gizarte-enpresa bat, gizarte-ekonomiaren eragilea, helburu nagusia bere jabe edo bazkideentzat etekinak sortzea baino gehiago gizarte-eragin bat izatea duen enpresa bat da. Merkatuan ondasunak eta zerbitzuak modu enpresarial eta berritzailean eskainiz jarduten du eta bere soberakinak gizarte-xedeetarako erabiltzen ditu batik bat. Kudeaketa arduratsua eta gardena du, zehazki bere jarduera ekonomikoan dituen enplegatu, bezero eta alde interesdunen elkartea sortuz.

Gizarte-ekonomiak 11 milioi langiletik gora erabiltzen ditu EBn, hots, guztizko enpleguaren % 6. Eta Batzordeak gizarte-enpresen garapena indartu eta beren esperientzietatik ekonomia osoari laguntzeko balio duten irakaspenak atera nahi ditu, gizarte-ekonomian eta -berrikuntzan eragile giltzarriak diren gizarte-enpresen garapena indartzeko epe laburreko ekintza-plan bat aurkeztuz eta, era berean, epe ertaineko edo luzeko gogoeta-ildoak eztabaidatuz.

Ekintza-planak hiru jardun-ildo nagusi hauek proposatzen ditu: finantzaketa eskuratzen hobetzea, gizarte-ekintzaitzaren ikuspena hobetzea eta ingurune juridikoa hobetzea. Testuinguru honetan, Batzordeak hamaika neurri giltzarri proposatzen ditu eta 2012 amaitu aurretik jarriko ditu abian.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0682:FIN:ES:PDF>



> Enpresen erantzukizun sozialari buruzko estrategia

Batzordeak "gizartean duten eraginagatik enpresek duten erantzukizun" gisa definitzen du EES. Gizarte-solaskideek aplikatzekoa den legeria eta hitzarmen kolektiboak errespetatzea erantzukizun hori bete aurretiko baldintza da. Beren erantzukizun soziala beren gain erabat hartzeko, enpresek, alde interesdunekin lankidetzan estuan, prozesu bat aplikatu behar dute kezka sozialak, ingurumenekoak eta etikoak, giza eskubideen errespetua eta kontsumitzaileek beren enpresa-eragiketetan eta oinarriko estrategian dituzten kezkak integratzeko.

Prozesu horren konplexutasuna enpresaren tamaina, bere eragiketen izaera eta horrelako faktoreen mende egongo da. Baina enpresa txiki eta ertain gehienentzat, batez ere mikroenpresentzat, baliteke EESaren prozesua oraindik informala eta intuitiboa izatea.

2011-2014 aldirako ekintza-programak zortzi arlo hartzen ditu: EESaren ikuspena hobetzea eta praktika egokiak hedatzea; enpresetako konfiantza hobetzea eta jarraipena egitea; autoerregulazio- eta koerregulazio-prozesuak hobetzea; EESak merkatuan berekin dakarren saria hobetzea; enpresek gizarteari eta ingurumenari buruz ematen duten informazioaren hedapena hobetzea; EESaren integrazio handiagoa hezkuntzan, prestakuntzan eta ikerketan; EESko politika nazionaleri eta azpinazionaleri behin eta berriz ekitea eta EESari buruzko Europa eta mundu-mailako ikuspegiaren harmonizazioa hobetzea.

Batzordeak Europako enpresa-liderrei, finantza-sektorekoei barne, eskatzen die 2012 erdialdea baino lehen konpromiso ireki bat sinatzea eta hor bertan berri ematea, botere publikoekin eta beste alde interesdun batzuekin lankidetzan estuan, EBko enpresa kopuru handi batek enpresa-kudeaketa arduratsu bat, 2015erako eta 2020rako helburu argiak dituen, darabilela.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0681:FIN:ES:PDF>



> Gizarte-aldaketarako eta -berrikuntzarako programa

Lehia global handiagoaren, aurrerapen teknologikoaren erritmo azkarraren, joera demografikoen eta klima-aldaketaren ondorioz sortutako hamaika erronkari aurre egin beharrean daude gizarte europarrak. Krisi ekonomiko eta finantzario berriak larritu egin du egoera.


Gizarte-politikaren eta enpleguaren arloan, Batasunak arazo konplexu hauei aurre egiten segitzen du:

- langabezia-tasa altuak, bereziki kualifikazio gutxieneko pertsonenak, gazteenak, langile adindunenak, etorkinenak eta desgaituenak;
- gero eta lan-merkatu zatikatuagoa, non enpleguaren segurtasunean eta lan-baldintzetan eragina duten lan-jarraibide malguagoak eta beste erronka batzuk sortzen ari diren;
- behera doan eskulana eta gero eta presio handiagoa gizarte-babeseko sistemetan aldaketa demografikoaren ondorioz;
- lana eta familia-erantzukizunak bateratzeko eta lan-jardueraren eta bizitza pribatuaren artean oreka jasangarria lortzeko arazoak,
- pobrezia-atalasetik behera eta gizarte-bazterketako egoeran bizi den pertsona kopuru onartezina

Batzordearen programaren xedea helburu nagusi hauek lortzea da: Batasunaren helburuekiko atxikimendua indartzea enplegu-, gizarte- eta lan-baldintzen esparruetan eta, era berean, gizarte-babeseko sistemen eta lan-merkatu egoki, eskuragarri eta eraginkorren garapenari laguntzea; eta erreforma politikoa erraztea, gobernantza ona, elkarrekiko ikaskuntza eta gizarte-berrikuntza sustatuz.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0609:FIN:ES:PDF>



> Finantza-merkatu europar eraginkorrako, sendoago eta gardenagoak lortzeko arauak

Finantza-merkatuak nabarmen bilakatu dira azken urteotan. Produktu eta negoziazio-zentro berriak agertu dira eta panorama aldatu egin da aldaketa teknologikoekin, hala nola goi-maiztasuneko transakzioekin.

Europako Batzordeak finantza-tresnen merkatuei buruzko zuzentaraua (2004/39/EE, MiFID izenekoa) berrikusteko zenbait proposamen aurkeztu ditu. Proposamen horien (zuzentarau baten eta erregelamendu baten) xedea finantza-merkatu eraginkorrakoak, sendoagoak eta gardenagoak lortzea eta inbertitzaileen babesa indartzea da. Esparru berriak ikuskatze-ahalmen handiagoa emango die arauemaileei eta funtzionamendu-arau argiak eskainiko ditu negoziazio-jarduera guztietarako. Horrelako eztabaidak ari dira egiten Estatu Batuetan eta mundu-mailako beste zentro finantzario garrantzitsu batzuetan.

Proposamenaren elementu nagusiak hauei buruzkoak dira: Merkatu-egitura gogor eta eraginkorrakoak (besteak beste, ETEko merkatuetarako berriazko marka bat sortzea aurreikusten da); berrikuntza teknologikoak (negoziatio-jarduera algoritmiko eta goi-maiztasunekoetarako babes berriak); gardentasun handiagoa; ikuskapen-gaitasun handiagoak eta esparru zorrotzagoa eratorrien merkatuetarako lehengaiei dagokienez eta inbertitzaileen babesa (zorroak kudeatzeko arau zorrotzagoak, inbertsio-arloko aholkularitza eta produktu finantzario konplexuen eskaintza, hala nola produktu egituratuena).

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0656:FIN:es:PDF>

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0652:FIN:ES:PDF>



> Finantza-tresna berritzaileen hurrengo belaunaldirako esparrua

«Finantza-tresna berritzaile» terminoa laguntzak emate hutsa ez diren esku-hartzeetarako erabiltzen da. Terminoak, beraz, aurrekontuaren laguntza finantzarioa diru-laguntza hutsak ez diren beste bideetatik ematen den kasu sorta zabala hartzen du, Batasunaren laguntzak finantza-erakundeen maileguekin konbinatzen diren kasuak barne.

Finantza-tresna berritzaileek gero eta zeregin garrantzitsuagoa izan behar dute EBren 2014-2020 Hainbat Urtetarako Finantza-esparruaren aurrekontu-gastuan Batzordeak tresna horien diseinuaz eta kudeaketaz duen ikuspegia azaltzen du.

Finantza-tresna berritzaileen erabilera handiagoarekin lortu nahi dena ez da laguntzak ematea ordezea, baizik esku hartzeko beste bide batzuetatik osatzea, EBren helburuak lortzen laguntzen duten proiektuei laguntza emanez.

Finantza-tresna berritzaileen artean arrisku-kapitala/inbertsio-kapitala ekartzen duten tresnak eta zor-tresnak (hala nola mailegu- edo berme-mekanismoak edo arriskuak finantza-erakundeekin banatzeko mekanismoak) daude.

Finantza-tresnak aproposak dira askotariko sektoreetako inbertsio azpioptimoko egoeretan parte hartzeko, hala nola finantza-aldetik bideragarriak izan daitezkeen (adibidez, diru-sarrerak sortzeko ahalmena izatea) baina merkatuan nahikoa finantza-bolumen (oraindik) erakartzen ez duten enpresa-jarduerak.

Finantza-tresna berritzaileek Batasunaren helburu zehatzak bilatzen dituzte eta harentzat interesgarriak diren esparruetan (bai berrikuntzan, bai hazkunde iraunkorrean, bai enplegua sortzean edo beste helburu batzuetan) finantzaketa bermatzen dute.

Informazio gehiago:

<http://eur-lex.europa.eu/LexUriServ/LexUriServ.do?uri=COM:2011:0662:FIN:ES:PDF>



KOHESIO-POLITIKA

> *emugi!*, Elgoibarko ekimena pertsona eta salgaien mugikortasun iraunkorrerako

Urriaren 18an *emugi!*, EGEFekin batera finantzaturako ekimen berria, aurkeztu zen Elgoibarren, udalerrian mugikortasun iraunkorra bultzatzeko, pertsonak eta salgaiak garraiatzeko auto eta moto elektrikoen alokairu eta erabilera banatuaren bidez.

emugi! ibilgailuaren arrazoizko erabilera sustatzeko sortu da, eta Debarreneko herria klima-aldaketaren aurkako borrokaren, energia-aurrezkiaren eta hirigintza erakargarri eta jasangarri baten erreferente bihurtzeko. Zenbait jarduera aurreikusten ditu, hala nola ibilgailu elektronikoak alokatzeko zerbitzu bat, auto, bizikleta edo motor elektrikoak barne hartzen dituena; furgoneta, moto edota bizikleta elektrikoen bidez salgaien banaketa jasangarriko "azken milia" sistema bat gaitzea eta pedaleo lagunduko hiru gurpildun ibilgailu baten prototipoa diseinatzea eta garatzea.

Joan den maiatzean, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak aurrez onartuta, 2007-2013 Euskal Herriko EGEF Programa Eragilearen Jarraipen Batzordeari jakinarazi zitzaion proiektu hau, beste lau proiektuekin batera, baterako finantzaketa europarrean sartu zela.

Informazio gehiago:

<http://www4.gipuzkoa.net/ogasuna/fondoseur1/uploads/noticias/2011-11-04%20Berria%20emugi.pdf>



> OPEN DAYS 2011: Eskualde eta Hirien Europako Astea

Eskualde eta Hirien Europako Astea urriaren 10etik 13ra egin da, Europako Batzordearen 2013tik aurrerako kohesio-politikarako lege-proposamenak eta Hainbat Urtetarako Finantza-esparruari buruzko eztabaidan eskualdeek eta hiriek duten rola eztabaidatzeko

“Europaren etorkizunean inbertitzea: eskualdeak eta hiriak eta hazkunde zentzudun, iraunkor eta integratzailean duten ekarpena” titulupean, OPEN DAYS 2011 hiru lehentasun tematikoren inguruan antolatu dira:

- Europa 2020: Zer ekarpen dute kohesio-politikak eta egiturazko funtsek hazkunde zentzudun, iraunkor eta integratzaile batean?
- Gauzatze hobea: Nola hobetu dezake EBk kohesio-politika gauzatzea, orain eta 2013aren ondoren?
- Geografia garrantzitsua da: Zer etorkizun du lurralde-lankidetzak eta zer ikas dezakegu hirugarren herrialdeetatik?

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/conferences/od2011/presentation_frame.cfm?nmenu=333

> Lurralde-Lankidetzak Europarra: pertsonen artean zubiak eraikitzen

Eskualde Politikako Zuzendaritza Nagusiak dokumentu hau argitaratu du: “European Territorial Cooperation: building bridges between people” (Lurralde-lankidetzak europarra: pertsonen artean zubiak eraikitzen).

Argitalpen honek lankidetzak europarraren funtzionamendua aurkezten du, lurralde-lankidetzako talde europarrak eta EBren makroeskualde-mailako estrategiak eta bere ikuspegiak barne.

Lurralde-lankidetzak europarra giltzarria da espazio komun europar bat eraikitzeko eta Europako integrazio-prozesuaren oinarria.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/cooperate/cooperation/index_en.cfm



e-LIBURUTEGIA

> Gizarte-klima Europar Batasunean

Eurobarometroak Europako gizarte-klima aztertu du. Análisisa, biztanleriari (herrialdeko 1.000ri) egindako inkestan oinarrituta, hiru atal eta hamabost itemetan antolatu da:

- Egoera pertsonala: egoera orokorra, bizileku-area, lan-egoera eta finantza-egoera etxean.
- Egoera orokorra herrialdean: ekonomikoa, lanekoa, bizi-kostua, administrazio publikoaren kalitatea, etxebizitza eskuratzea eta energia.
- Gizarte-babesa eta gizarteratzea: osasuna, pentsioak, gizarte-prestazioak, kultura-aniztasuna eta gizarte-berdintasuna.

Orokorrean, Europako biztanleriak uste du bere egoera pertsonala nahiko egokia dela; egoera orokorra, berriz, nahiko desegokitzat jotzen du eta gizarteratzea eta gizarteratzea, negatibo samarra.

Egoera pertsonalari dagokionez, nabarmentzekoak dira beren gogobetetze argiagatik Suedian, Finlandian, Holandan eta Luxenburgon bizi diren pertsonak; Bulgarian, Errumanian, Hungarian eta Grezian, berriz, negatiboa da.

Egoera orokorra txartzat hartzen da estatu gehienetan, 27 estatu kideetatik 21etan, hain zuzen. Austrian eta Suedian baino ez da positibo samarra; Grezia, Errumanian, Irlandan, Portugalen, Hungarian eta Lituania, aldiz, oso negatiboa da.

Gizarte-babesari eta gizarteratzeari dagokionez, bi herrialde talde bereiz daitezke: hamar balorazio positiboarekin (Luxenburgo, Holanda eta Austria nabarmentzen dira) eta argiro negatiboarekin azken zabalkundeetako herrialdeetan.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/public_opinion/archives/ebs/ebs_370_en.pdf



> Industria-inbertsioa I+Gan Europar Batasuna 2011n

“The 2011 EU Industrial R&D Investment Scoreboard” azterlanak I+Gan inbertsio handienak dituzten Europar Batasuneko 1.000 enpresei eta kanpoko 1.000 enpresei buruzko informazioa biltzen du. Analsiak I+Gko datuak biltzen ditu, azken lau ekitaldietako datu ekonomiko eta finantzarioekin batera.

Txostenak (2010eko datuak ditu) dioenez, enpresek susperraldi nabarmeneko zantzuak dituzte: adibidez, I+Gko igoera garrantzitsua eta bi digituko igoerak salmentetan, ustiapen-etekinetan eta enpresen merkatu-balorazioan.

Europako enpresa nagusien I+Gko inbertsioek susperraldi nabarmena izan zuten 2010ean, % 6,1 igo baituzten; 2009an, berriz, % 2,6 jaitsi ziren. Hala ere, munduko lehen 1.400 enpresei dagozkien datuek adierazten dute enpresa europarrak orokorrean ez direla Estatu Batuetako beren lehiakide nagusiak eta I+Gko hazkundera diren ekonomia asiar batzuk bezain dinamikoak.

Baina enpresek ingurune ekonomiko konplexuago bati egin behar diote aurre. Badira bereziki enpresentzat presioa sortzen duten bi gai ekonomiko handi: zor nazionaleko mailak eta ekonomia garatuetan ikusten diren hazkunde-tasa baxuak, enpresa askoren salmentak eta hazkundera muga ditzaketanak.

I+Gko guztizko inbertsioetako munduko lehen berrogeita hamar enpresen artean EBko 15 enpresa, Estatu Batuetako 18 eta Japoniako 13 daude. Bi farmazia-enpresak lortu zituzten lehen postuak: Roche, Suitzakoak (7.200 milioi euro), ondoren Pfizer, Estatu Batuetakoak (7.000 milioi euro). Volkswagenek (6.300 milioi euro) seigarren tokia lortu zuen eta EBko inbertitzaile handiena izan zen I+Gan; ondoren Nokia (11.a, 4.900 milioi euro), Daimler (13.a, 4.800 milioi euro) eta Sanofi-Aventis (14.a, 4.400 milioi euro).

Enpresen I+Gko inbertsioen bi herenetik gora hiru estatu kide handienetatik datoz eta enpresa alemanek erregistratu zuten hazkunde handiena urtebetean (% 8,1), batez ere automotziko enpresa banaka batzuei esker (Daimler, Volkswagen y BMW). Erresuma Batuko enpresen I+Gko inbertsioen igoera % 5,8koa izan zen, EBren batez bestekoaren inguruko zifra bat, eta enpresa frantsesena % 3,8koa izan zen. *Informazio gehiago:*

Informazio gehiago:

http://iri.jrc.ec.europa.eu/research/scoreboard_2011.htm



> Lan-merkatua Europar Batasunean

Eurostaten argitalpenak Europako lan-merkatuari buruzko zenbait alderdiren ikuspegi global bat dakar.

Aurkeztutako estatistikak esparru hauei buruzkoak dira: biztanleria aktiboa, enplegua, langabezia, etxeetako egoera, osasun-arriskuak lanean, lanpostu hutsak, irabaziak, lan-kostuak eta enplegu-politikak.

Informazioak erreferentziako adierazle nagusietan jartzen du arreta eta EB-27ko herrialdeei buruzkoa da, eta Suitzari, Norvegiari, Islandiari, Turkiari eta Kroaziari buruzkoa.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_OFFPUB/KS-32-11-798/EN/KS-32-11-798-EN.PDF



ADIERAZLEAK

> Langabezia-tasa Gipuzkoan eta Europar Batasunean

Biztanleria gipuzkoarraren langabezia-tasa Europar Batasun-27aren tasaren azpitik dago hirugarren hiru hilekoan, % 7,5 eta % 9,7ko balioekin, hurrenez hurren. Hala ere, azken hamabi hiletan zehar, aldea portzentajezko 7 hamarren jaitsi da, langabeziak Gipuzkoan duen eragin handiagoaren ondorioz.

Langabezia-tasa gipuzkoarra Batasuneko bederatzi estatu kiderena baino handiagoa da eta gainerakoena baino txikiagoa. Langabezia-tasa txikiena duten estatuak Austria (% 3,9), Holanda (% 4,5) eta Luxenburgoko (% 4,8) dira.

Gipuzkoan nabarmena da langabeziaren eragin txikia emakumeen artean (% 6,7), UE-27aren batez bestekoa baino dezente txikiagoa (% 9,9). Izan ere, Austriak, Holandak eta Luxenburgok besterik ez dute gipuzkoarra baino langabezia-tasa femenino txikiagoa.

Gizonen artean, langabezia-tasa % 8,1 ingurukoa da Gipuzkoan eta % 9,5ekoa UE-27an.

Datu absolutuetan, langabetu kopurua 25.000koa da Gipuzkoan eta 23,3 milioi pertsonakoa UE-27an.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/3-31102011-BP/EN/3-31102011-BP-EN.PDF

http://eu.eustat.es/ci_ci/estadisticas/tema_37/opt_0/tipo_1/ti_Biztanleriaren_jardueraren_arabera_sailkatzek_o_inkesta_BJA/temas.html#axzz1e3ARz0LI

> Gipuzkoako biztanleko BPG Europar Batasuneko batez bestekoa baino % 34 handiagoa da

Gipuzkoako biztanleko BPG 30.147 eurokoa zen 2010ean. Erosketa-ahalmenaren parekotasun-terminoetan, zifra hori UE-27ko batez bestekoa baino % 34 handiagoa da.

Izatez, estatu kide guztiei dagokiena baino handiagoa da, Luxenburgokoa izan ezik.

Holandaren, Austriaren, Danimarkaren eta Suediaren per capita aberastasun-indizeak (beti prezio-maila nazionalak zuzentzen dituenak) batez besteko gipuzkoarraren antzekoak dira.

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.es/ci_ci/elementos/ele0002500/ti_Biztanleko_BPGa_EAP_herrialde_eta_urtearen_arabera_EU_27100_2001-2010/tbl0002542_e.html#axzz1e3ARz0LI



> Defizit publikoa UE-27an eta estatu kideetan

Defizit publikoa BPGaren % -6,2an zegoen UE-27 osoan, 2009rekiko pixka bat jaitsita (% 6,4), baina 2008koa (% 2,1) eta 2007koa (% 0,7) baino askoz handiagoa da.

Defizit hori BPGaren % 50,9ko gastu publikoaren ondorio da, eta diru-sarrerak % 44,6koak izan ziren.

BPGean defizit handiena zuten herrialdeak Irlanda (% -31.3), Grezia (% -10.6), Erresuma Batua (% -10.3), Portugal (% -9.8) eta Espainia (% -9.3) izan ziren.

UE-27aren zor publikoa BPGaren % 80,2raino igo zen. Zortzi herrialdek gainditzen dute portzentaje hori: Greziak, Italiak, Belgikak, Irlandak, Portugalek, Alemaniak, Frantziak eta Hungariak.

Informazio gehiago:

http://epp.eurostat.ec.europa.eu/cache/ITY_PUBLIC/2-21102011-AP/EN/2-21102011-AP-EN.PDF